



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA  
2017/02/26

## **Bonbardaketen biktimek Gernikan laga dabe Sabino Arana saria**

Gernikako, Durangoko eta Otxandioko bonbardaketetatik bizirik jarraitzen daben pertsonak, euren herrietako hiru nerabek lagunduta, Gernikako Batzarretxean laga dabe joan dan hilean jaso eben Sabino Arana saria.

Andone Bidaguren eta Garoa Basterretxeaz (Gernika), Pilar Bilbao eta Pello Iriondoz (Durango), eta M<sup>a</sup> Ángeles Ortiz de Zarate eta Mikel Lasuenez (Otxandio) gain, ekitaldian hiru herrietako udal ordezkariak hartu dabe parte, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentegaz batera, eta Juan María Atutxa Sabino Arana Fundazinoko presidentegaz batera .

Bertan, eskintza bat itzi dabe Gernikako Batzarretxeko Ohorezko Liburuan: "Leku esanguratsu honetan, euskal herritar guztion etxe sakratuan eta gure askatasunaren ikur nagusi den Arbolaren gerizpean, honako sari hau gorde gura dogu bertan 1936-1939ko gerrako biktima guztiak gogoan hartuta eta gaur egun ere gatazka belikoen eta jazarpenaren kalteak pairatzen ari diren guztien izenean".

"Guretzat benetako ohorea da sari garrantzitsu eta hunkigarri hau Gernikako Batzarretxean gordetea.- Gaurko ekitaldiagaz gure eskubideen eta gure askatasunen hainbat sinbolo alkartzen dira, Picassoren Guernica, gure lurraldean bonbardeutako herriak eta Gernikako Zugatza, gure eskubide eta askatasun guztien sinbolo unibersalena", azpimarratu eban Ana Otadui.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

26/02/2017

## **Víctimas de los bombardeos depositan el premio Sabino Arana en Gernika**

Supervivientes de los bombardeos de Gernika, Durango y Otxandio, acompañados de tres adolescentes de estos mismos municipios, han depositado en la Casa de Juntas de Gernika el premio Sabino Arana que recibieron el mes pasado.

Además de Andone Bidaguren y Garoa Basterretxea (Gernika), Pilar Bilbao y Pello Iriondo (Durango), y M<sup>a</sup> Ángeles Ortiz de Zarate y Mikel Lasuen (Otxandio), en el acto han participado representantes municipales de los tres pueblos junto a la presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, y el presidente de la Fundación Sabino Arana, Juan María Atutxa.

Allí han dejado una dedicatoria en el Libro de Honor de la Casa de Juntas de Gernika: "En este emblemático lugar, hogar sagrado para todos los vascos y a la sombra del Árbol que es símbolo de nuestras libertades, depositamos este premio en nombre de todas las víctimas de la Guerra de 1936-1939 y de todas y todos los que hoy día siguen sufriendo conflictos bélicos y persecución".

"Para nosotros es un honor custodiar en la Casa de Juntas de Gernika este importante y emotivo premio. Con el acto de hoy se aúnan diferentes símbolos de nuestros derechos y nuestras libertades como son el Gernika de Picasso, los pueblos bombardeados de nuestro territorio y el árbol de Gernika, el símbolo más universal de todos nuestros derechos y libertades", ha destacado Ana Otadui.